

AITZINA

Editorea: Ferrn Munariz. Koordinatzailea: Mariasun Monzóe. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa: 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

NORANTZA

JOXE MARI AUZMENDI

Hik Hasiko ZUZENDARIA

« Euskal irakaskuntzarako elkargune bat sortu nahi dugu »

Duela bost urte jaio zen «Hik Hasi» eta gaur arte izan duen ibilbidea ez luzea baina oso emankorra izan da. Hik Hasikoek jolas eta musika arloa jorratu dute, Guneako dinamizatzaileak dira eta bigarren hezkuntzan izaten den euskararen erabilpena bultzatu nahian dabilta. Egun beste amets bat dute buruan, uztaierako antolatzen ari diren udako topaketak.

ikusten genuen, ume asko erdaraz jolasten zirelako, eta horri erantzuna emateko jolas bilduma bat egin genuen eta bi zinta atera genuen berrogeita hamabost jolasekin, horietako hogeit hamar eta gainerakoak jolas zaharrak. Lan hori egin ondoren, ikastetxetan izan gara irakasleei nola jolastu erakusteko. Musika alorrean ere egin dugu lan, txiurlarako antologia bat egin dugu, euskal abestak denak, eta beste bat gitarrarako. Txiurlarako egindakoa agortu egin da eta berriro aterako

dugu. Udal Euskara Teknikarietako harremanetan jarri gara, bigarren hezkuntzan euskara lantzeko, hamabi urtetik aurrera euskararen erabilpena jaisten dela konturatu baizik eta, hortaz, zerbait egin behar dela uste dugulako.

Bots urtez lanean aritu ondoren, zein izango duzue hurrengo pausoa?

Euskal irakaskuntzak elkartoki bat behar duela uste dugunez, topaketa bereziak antolatu ditugue aurten. Orokorrean, irakasleek topagune batzuk egiten dituzte kursoan zehar, matematikakoa, ingurugirokoa eta abar, baina topaketa bat, elkartoki bat, falta da. Gure erreferentzia Adarra izan da, Adarrak antolatzen zituen topaketak. Topaketa horiek indargabetu ziren, asko erdaraz zirelako eta beste gauzengatik, eta, gure ustez, orain dugu euskal irakaskuntzan parte hartzen dugun guztiok elkartzeko aukera.

Zein ezaugarri izango dituzte topaketa hauek?

Topaketa hauek udan egingo dira, ikasturtea bukatu bezain laster, uztaieraren lehenengo astean hain zuzen ere, eta Donostian izango dira, ikastaro guztiak gure berean edo gertu. Oraindik ez dugu zehaztu zeintzuk izango diren ikastaroak, baina ziuraski informatika eta teknika berriek, adibidez, lekua izango dute, oraindik ere eskoletan gutxi zabaldutako baliabidea dela uste dugulako.

BEGONA SIMON

Duela bost ikasturte dago Hik Hasi aldizkaria kalean, baina zein helbururekin jaio zen aldizkari hau?

Guk ikusten genuen euskal irakaskuntzarako aldizkariak ez zegoela eta hutsune hori betetzeko asmoz jaio ginen. Beste hutsune batzuk ere betetzen saiatu gara. Adibide bezala esango dizut Euskal Herri osorako izan nahi genuela. Zatiketa gaituz, euskal hezkuntzako geltoki bat izatea da gure helburua, eta euskal kulturaren oinarritzen den hezkuntzako sistema propio bat lantzea da gure nahia.

Aldizkariaren gain, zein gauza egin duzue?

Jolas inguruan ere hutsune bat



Albano Elsoqui

Zirtoka



Txillardegi

Murmansk

Kondatuko dudán albisteak ez ditu bazterrek harrotu, eta ez harrotuko ere. Zeren non dago Murmansk? Zer akola guri eskualde urrun hotz hartan gertatzen dena?

Mosku-tik Iparraldeko Barents Itsasora jotzen duen trenak, San Petersburg-en burutzen du lehenengo urratsa; eta handik segidan «gora» egiten du, Artiko aldera, eta Murmansk-en amaitzen bere bidaia.

Murmansk laponiarren eskualdea den jatorriz. Baina gaur, etorkinen olatuan, erusiar bihurtu da. Hiriak berak 455.000 biztanle ditu; eta arrainari lotutako industriaz bizi da, oro har.

Baina kaia da gakoa. Mexikotik datorteen «Gulf Stream» apeleri esker, bertako giroan 30 grado zeropetik dagoelarik ere, Murmansk-eko portua, Norvegia-ko guztiak bezala, erabilgarria baita, eta ez baita normalean hormaketaren ondorioz gelditzen.

Gerra garaian, horretara, oso garrantzi handia izan zuen kaiak Errusia-ra laguntza hel erazterakotan.

Baina ez noa horretara. Artikotan barrena itsas ontziak pasabide bat ireki behar zaizaien, Murmansk-etik abiatzen dira ontzi horma-puskatzaileak. Lau bide dira mementu honetan, eta energia nuklearek mogitzen dira. Horma geruzak metro bateko lodiera iristen duenean, egoki bide datoz eta merkeago.

Baina bego hori ere, ez bainaiz ni inor arlo honetaz hitz egiteko. Murmansk-en eguzkia ez da irten ere egiten Azaro bukaeratik.

Urtarril bukaera arte. Iaz Kola Penintsulan termometroa 42 zeropera ino iritsi zen...

Hots, Murmansk-en, eta honetara noa, 455.000 lagun bizi dira. Iruztinako oro sobera, ene ustez. Mendi tontrak zuriturik agertzeko u honetan, eta hemengo aro txarrak madarikatzeko bezperan, hau jakitea bizkorgari gerta dakiguke. Ene uste apalaz bederen.

Aitzindariak

ANTSO VI ZUHURRA
1 1 3 2 1 1 9 4

